

HITZEKIN

MEZUA

Herri honen eztaurretatik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.

Oihu honek hogeita bigarrenez erakutsi digu hizkuntza bat ez dela hitzekin egiten bakarrik, hitzekin eta gorpuzekin baizik. Belaun eta hanken gainean trostan eraman daitekeela hitza; dardara, arnasestu eta izerdi artean pasatu ahal zaiola elkarri eskutik eskura.

Hizkuntza zerbait fisiko bihurtzeko ahalmena du Korrikak. Gure a e i o u partikularra gorpuzteko. Eta hori behar du euskarak: haragi bihurtzen diren hitzak.

Euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, arnas aparatua eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrera. Malko eta listuz bustitzea behar du euskarak. Hatz markaz zikintzea.

Zikindu dezagun, beraz, euskara; lohitu dezagun bizitzaz. Eta egin dezagun euskararekin hainbat inertiaren kontra:

Hitzak hustu egin diren garai batean, bete ditzagun euskararen berbak harri eta herriz.

Dena erosi eta saldu omen daitekeen garaian, erakutsi dezagun zein merkea den gure hizkuntza: debalde hartzen dugu herriaren ahotik eta debalde ematen diogu herriaren belarriari.

Indibidualismoa indartuz doan garaian, egin dezagun euskara kolektibo bat, denon artean eta denona.

Gerren sasoiari, lehenetsi dezagun beti hitza.

Influencer eta youtuberren aroan, izan ditzagun guk bestelako jainko txiki inspiratzaileak.

Euskararen pronostikoa gudan dagoela gogorarazi zigun Pello Zabala, adibidez.

Edo euskaraz apaltasun eta harrotasun hitzak bateragarriak direla erakutsi zigun Joan Mari Torrealdai.

Edo euskara ez dela zaila, euskara nahia dela erakutsi ziguten Elbira Zipitria, Julene Azpeitia edo Izaskun Arrue bezalako andereñoak.

Eta etiketen garaian, ahaztu ditzagun behingoz euskaldun berri eta zaharrak. Iraultza honetan, lasterketa honetan, denok garelako euskaldun berri. Hizkuntza bat egunero hasten delako, egunero berritzen delako. Hizkuntza bat ez delako jaiotzen, egin egiten delako.

Sinistu dezagun euskara ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik.

Eta atera dezagun gure eztaurretatik Mauriziaren irrintzi baten indarrak.

EKIN EUSKARARI, EUTSI KATEARI!

GORA KORRIKA ETA GORA EUSKARA!

Karmele Jaio Eiguren

aek
22.korrika

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

korrika.eus

